

ELKARRIZKETA: JONE MAIOZ

Gipuzkoakok Baso Elkarteko teknikari eta Tolosaldeako ordezkari

"Basogintzan daramatzadan 30 urteetan ez ditut mendiak orain bezain abandonatuta ikusi"

"Mendia izatea gure arbasoengandik jaso dugun ohorea, luxua eta pribilegioa da, baina ez gara horretaz jabetzen"

Zerrenda itzazu abandonua txarra dela azaltzeko motiboak?

Abandonua txarra eta kaltegarria da alderdi askotatik begiratuta.

Basogintzaren ikuspuntutik, basoaren erabilerei dagokionean, jabetzaren alorretik... Azkenean, jabe bezala, zurea den gauza batetaz ari zara. Baso-mutila hitza ere gurea da. Nik ikusten dudan moduan, ohore eta pribilegio bat da basoa edukitzea. Ez dago edozeinen eskura lurra edukitzea. Zer gertatzen da, aldiz? Ba, ez gara horretaz jabetzen. Hori da soilik. Nik, adibidez, gurasoengandik lurra jaso ditut eta horiek gizaldietan zehar hor egotea eta orain nire eskuetan izatea... ba zer nahi duzu esatea, ni harro nago.

Sentimentalistoak sartu duzu tartean.

Hori egokitu zait eta aurreko guztiek hor egindako lan guztia nire ardurapean dago orain. Nola esango dut orain horrek guztiak ez duela ezertarako balio eta uztera noala? Nire ustez, balorazio hori falta zaigu basoa duguoni ere. Basojabe izatea luxu bat da. Kontuan izan behar dugu lurra emankorra dela eta eman dezakeen horri uko egitea zer suposatzen duen. Nik aukera hori izatea, nire lurretan arbolak jartzea, baratzen letxuak jartzea bezala, eta horiek hazten disfrutatzeke aukera izatea pribilegio bat da.

"Abandonuaren ondorioak ezagunak dira. Pistak ixten dira eta horrek sute arrisku ikaragarria dakar"



Baina sentimentalismoez gain, datu objektiboak ere izango dira abandonua gaitzesteko?

Hori alde batetik, eta gero esango nizuke, bestetik, zenbait eta abandonu gehiago dagoen mendietan, ba betiko kontuak. Ezagunak dira abandonuaren ondorioak. Hor etortzen dira sasiak, pistak ixten dira eta horrek ekartzen du sute arrisku ikaragarria. Hori ere kontuan izan behar dugu, Gipuzkoa baita estatu osoan baso azalera gehien duen lurraldea. Eta gehiena baso abandonatua bada, begira zer arriskuan jartzen garen.

Sute arriskua beti buruan?

Zorionez, gure klima, berez, ez da sutetarako arriskutsuena, baina ematen dira tarteka sute handiak: 1989an gertatu zena, adibide: fego haizea juntatu zen, gainera lurra oso lehorra zegoen. Eta orain ere ikusi dugu, 2021ean Bidasoaldean eta Nafarroan erre den gehiena, utzitako mendia zen. Eta gero, bideak ixtea da, nire ustez, denontzat, gauza guztietarako atzerapen bat. Suteak itzaltzeko ezin zara iritsi, baina biderik ez badago, nola joan behar duzu mendira lanera edo aisialdira?. Ni beharretarako joango banintz, ni arduratuko nintzateke ondo edukitzeaz. Hortaz gain, herri batek ere bere basoetara joateko bide nagusiak ixten edo zikintzen uztea, edo erabilgarri ez izaten uztea, bere hondasun bat uztea da. Ez dut ulertzen hori. Eta gero ekonomikoki suposatzen duena.

Ekonomikoki zer?

Azkenean, Euskal Herrian eta Gipuzkoan batipat egurra sortzeko aukera ona dugu eta horrek ere badu garrantzia eta eragina. Bertan egurra salduz, enpresak lanean jartzen dituzu, bai garbitzeko, zein landatzeko edo botatzeko... hor mugimendua dago. Mendietan aktibitatea badago, hortik dirua mugitzen da, ez basojabearen patrikara soilik, garbitzera doazenak, bidea konpontzera doazenak, etabar. Hor martxa dago. Baina hori uzten bada, ekonomikoki ere eragina izango du.

Kontserbazionistek dute Gipuzkoan ez dagoela basorik, landaketak baizik eta berez, lurraldearen % 80k beharko lukeela baso natural izan. Aldiz, esan bezala, bere azalera guztiaren % 61 zuhaitzez estalita egonik, Gipuzkoa Estatu osoan baso gehien duen lurraldea da.

Niretzako baso da. Nik ez dut ulertzen diskurso hori. Beraiek (kontserbazionistek) baso hitza komeni zaien bezala erabiltzen dute. 'Gipuzkoan ez dago basorik', diote. Barkatu? Esaidazu berriz... Nik ez dut horrela ikusten, ez sentitzen. Hori basoa da. Ez zait buruan sartzen. Nola utziko diozu ba, bertan sortutako egurrarekin, gure bizitzan erabiltzen ditugun materialetarako lehengaia eskuratzeko aukerari? Bertan dugu aukera guk produzitzeko ibili behar dugun materiala eta esaten didazu horri uko egitea? Hori planteatzea ere ez zait buruan sartzen. Hau da, dugun gauza on bati uko egitea. Zeinek esaten digu egunen batean bizitzeko horren beharrik izango ez dugunik? Zeinek esaten digu hori ez dela etorriko? "iAi! eskerrak mendia dudan eta egur batzuk sartzeko dauzkadan, bestela ez dakit nondik aterako nukeen dirua". Hori ere tokatzea gerta daiteke.

Eta eukaliptoak?

Eta eukaliptoarekin, berdin berdin. Nik gauza hauek ez ditut ulertzen. Baso guztia bertan behera utzi, baina gero, hori eskatzen duten asko dira horren ondorioetaz kexatzen diren lehenak. Eta gero, behar dugun egur guztia nondik ekarri behar dute? nondik erosi behar dute? Nik ez ditut ulertzen. Ezin dut sinistu hori benetan esaten ari direnik.

Kontserbazio zona bereziak ere beharko ditugu?

Normala da zonalde batzuk kontserbaziorako uztea; eremu babestuak egotea. Baina ez da onargarria basoa ustiatu ezin daitekeenik. Eta erreka ondoetan dauden industria-pabilioi guztiak, zer? Hemen nork egin du kalte gehien? Eta diskurso hori darabilten baten batzuk marisma beharko lukeen tokian bizi dira gainera. Ez dago ulertzerik.

Abandonuak aurrerakada izan duela datuek diote. Baina zuk basoan bertan ikusi eta egoeraz kezka handia duzu, ezta?

Basogintzan lanean nabilenetik, 30 urtean, ez dut ikusi gaur egun bezain beste baso abandonaturik.

Eta zergatik da hori? Lehen aipatutako errelebo falta horregatik?

Ekonomia ere, egurraren prezioetan esan nahi dut, ez dago lehen bezala. Azkenean, entresaka batek dirua ematen badizu, ba pixkat animatzen zaitu. Azken finean, dirua behar izanarena, normala da. Egunero behar dugu bizitzeko baita ere. Basojabeok dirua behar dugu ere bai, guztiok bezala. Hau zer da, dirudunen kontua ala? Oker dabilta.

Gure basoetan aukera dugu behar dugun materiala ekoizteko. Abandonatzea guztion ondarea hondatzea da "

Basoarekiko maitasuna ere aipatu duzu. Azaldu iezadazu, zure ikuspuntua.

Hor gertatzen dena, zera da: nik ahalegina egiten badut basoa berritzeko eta zuhaitzak aldatzen baditut, horiek ume txiki batzuk bezala dira niretzat. Jartzen badituzu txikitan, beraiek pixkat zuzpertzarte, zuk ume horiek zaindu egin behar dituzu. Orduan, zuzinbolukratzen bazara, zuk ez dituzu uzten hala nola. Erabaki hori, basoa bertan behera uztearena, ez da hartzen hain erraz. Bi seme-alaba badituzu, nahiz eta xoxez larri ibili, hirugarren bat etortzen bazaizu, hari ere jaten emango diozu eta zainduko duzu. Kosta ahala kosta.

Orduan, zergatik hainbeste abandonu?

Gertatzen ari dena da, basoa adin batekin jarri zuenak, orain beste adin bat duela eta hartzen duenak, aldiz, dio: diruduna naizenez, ez diot ezta kasurik egingo.

Basojabe berriek, zaharren ondorengoek diru horren beharrik ez dutela esan nahi duzu?

Hori da. Baina, nik are gehiago esaten dut, aberatsak direla. Basoari uko egitea, aberatsa izatea baita, horren beharrik ez izatea, alegia. Bestela, kaso egingo zenion, ziur. Ni horretaz konturatzen naiz. Aldatzen duenak, zaintzen du. Landatu duenak, bizi den artean, zainduko du basoa. Seme-alabak bezala maite baituzu. Itxaropenik badut, alegia: Gure ondorengoei baso zaindu bat uzten badiegu, akaso heldu egingo diotela baso horri, utzitakoari ez bezala.

Eta pinuaren gaitzaz, zer diozu?

Orain etorri zaigun gaitz madarikatu honek kalte handia egin digu, eta gainera ez digute inongo kasurik egiten. Hala eta guztiz ere, basojabe askok, bihotz tripak egin ditu eta berriro landatu du basoa, zuhaitz berriari begira jarri da eta zaintzen hasi da berriro. Baina, noski, hemen basoa jarri duen jende asko hil da, edo ezindu egin da. Eta gaztetako inork ez badio kasurik egiten, ba basoan dago, dagoena.

Basoa maite duzula nabari da. Zu bezalakoak ere elkartean ugari direla diozu. Lobby hitza esaten dizuetenean, zer pentsatzen duzu?

Txiste bat iruditzen zait. Nire ustez, darabilten hitz egiteko modu bat besterik ez da.

"Oraindik itxaropenik badut, alegia, gure ondorengoei baso zaindu bat uzten badiegu, akaso heldu egingo diotela baso horri, utzitakoari ez bezala"

Ezjakintasuna al dago gizartean basojaboeekiko?

Sarritan ikusten dugu mesprezu egiten digun jende asko dagoela, politikariak ere bai tartean. Gure lana ez dute errespetatzen.

Baso mistoaren inguruan, bertan behera utzitako basoari, alegia, aprobetxamendua ateratzeko proiektu bat jarri du abian Basoa Fundazioak. Zer espero daiteke horretaz?

Gauza guztiak bezala, goian dauden politikariak egiten dioten kasuak esango du zertara iritsiko den. Bioekonomia da hori ere eta horretaz asko hitz egiten ari dira azkenaldian. Baina begetaletatik, energia lortzea, zuhaitzekin bai, baina belarrarekin ere lor daiteke. Ez dakit zer espero dezakegun hortaz. Ikerketaren helburua horixe da, bertan behera utzitako baso hori nola aprobetxatu, zertan aprobetxatu. Horretan hasi zen baso mistoaren aprobetxamenduaren proiektua. Baina azken finean, onura berdina lor dezakezu sojako 10.000 hektarearekin. Hori ere industrializatzea joango dira. Baso mistoa ere hor dugu, baina ez dakigu zein ibilbide izango duen.

Itxaron egin behar...

Juan Ramon Muruak ere azalpen polita egin zuen duela gutxi hitzaldi batean. Euskal Autonomi Erkidegoan pinuak zeuden tokia eukaliptoia edo baso mistoa betetzen ari direla esan zuen, baina aitortu zuen Gipuzkoako kasua oso berezia dela, aztertzekoa. Bizkaiko basojabearen aukera eukaliptoia izanik, Gipuzkoakoak kriptomeria eta sekuoia nahiago ditu. Horien aldeko apustua egin du. Hori zergatik eman den aztertzekoa zela zioen.

Kontserbazionistek eukaliptoaren kontrako zuzpertzuten korranteak eragina izan ote du horretan?

Presio fuertea orain eman berri da. Duela urte bete bazegoen zurrumurrua, baina ez zen hainbestekoa. Eukaliptoaren kontrako ahotsak azken urtean indartu eta hedatu dira. Baina guri aspalditik datozkigu basojabeak, basoa aldatzeko garaian, galdezka ea zer jar dezaketen euren lurretan eta aukera desberdinak mahai gainean jartzen zenizkionean, zerrendarekin hasi eta eukalipto aipatu orduko, azalpen gehiagorik gabe, "eukalipto ez", zioten askok. Hori aspalditik ikusi dugu elkartearen.

"Sekuoia, Douglas izeia eta itsas pinua birlandatu berri ditut, baina Atlaseko akazia eta zedroa jartzeko gogoz geratu naiz. Nik denei gomendatzen diet dibertsifikatzea"

Zer zuhaitz espezie sartuko zenuke zuk gaur egun edo zer gomendatuko zenioke bazkideei?

Nik oraintxe aldatu ditut sekuoia, Douglas izeia eta itsas pinua, baina gogoarekin gelditu naiz akazia eta Atlaseko zedroa jartzeko.

Dibersifikatzea da zure gomendioa, beraz?

Nik guztiei esaten diet hori bulegoan, dibersifikatzeko. Kontuan izan behar duzu, noski, zenbateko saila duen. Hektarea bakarra badu, ba ezingo ditu espezie asko sartu, baina baten batek zazpi dituela esaten didanean, orduan bai, argi eta garbi esaten diot: ez jartzeko zazpi hektareatan espezie bakar bat.

ASOCIACIÓN DE PROPIETARIOS
FORESTALES DE GIPUZKOA